# SAGARDOA ZENTZUMENEN BIDEZ DASTATZEKO FITXA
## PROFIL OROKORRA

| DASTATZEKO ALDIAK | IRIZPIDEAK | IRUZKINAK |
|---|---|---|
| IKUSTEAN | Araztasuna | Produktua ez iragazteari zor zaion uhertasun arina |
| | Kolorea | Horitik berderakoa |
| | Jariakortasuna | Oso jariakorra |
| | Eferbeszentzia isurtzerakoan | Aletxo xehea du ezaugarri |
| | Eferbeszentzia, iraunkortasuna | Aletxo iraunkorra likidoaren goiko aldean |
| | Eferbeszentzia, burbuilen tamaina | Ez dago edalontziari itsatsitako burbuilarik |
| | Ikusi batera | Sagardoaren berariazko itxura |
| USAINTZEAN | Indarra | Nahikoa |
| | Mota | Benetako aromak, gazteetatik helduetara |
| | Ñabardurak | Fruta heldugabe edo helduak (sagarra, anana, kiwia, arana, limoia, gerezia, mertxika, udarea eta abar) |
| | Balorazio orokorra | Sagardoak bakarrik eskaintzen dituen berezko sentsazioak |
| DASTATZEAN | Hasierako zaporea | Oso freskoa, garraztasun arinekoa, bizia |
| | Egitura-zaporea | Arina, baina nahikoa gorputz duena |
| | Amaierako zaporea | Benetakoa, biribila, berorren bertuteak agerian uzten dituena |
| | Oreka | Balantze ona garraztasunaren eta astringentziaren artean. Sagardoaren beste berezitasun bat. |
| | Gasa | Garratz-sentsazio arina, mihiaren puntan hauteman daitekeena. |
| | Sudur-atzeko indarra | Neurrikoa, nahikoa |
| | Sudur-atzeko ñabardurak | Aromaren arrasto aldakorra, euskal kontsumitzaileek balioesten duten benetako irizpidea (garraztasun aldakor arin hori janariaren koipeekin nahasten da, zapore oneko hamaika konbinazio sortuz) |
| | Dastatu osteko iraunkortasuna | Oro har ez da gehiegizkoa |
| | Zapore orokorra | Bizia eta freskagarria, edaten erraza |
| ONDORIOA | | Euskal gastronomiako plater ugarirekin batera dastatzeko jatorrizko edaria. Horien artean ditugu txarkuteria, bakailaoa, mariskoa, arrain eta haragi errea, gazta eta tortilla-mota ugari.<br>Tabernaz tabernako edari ere bada, festa eta ohiturei lotutakoa.<br>Edari natural dietetikoa (alkohol gutxikoa, %6; azido azetikoa duena, organismoarentzat onuragarri dena; B taldeko bitaminak dituena) |
| DASTATZEKO BALDINTZAK | | Sagardo-edalontzi handia, bereziki fina.<br>Tenperatura, 11 gradu zentigradu.<br>Altuera pixka batetik zerbitzatu behar da, karbonikoari bide emateko, horrek baitaramatza aromak.<br>Zurrutada txikiak eta edalontzia beti hutsik. |